

Gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzak 2020ko urriaren 16tik azaroaren 15era

2020-2021ko ikasturtea

Gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzak, 2020-2021 ikasturtea. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleek erabili ahal izango dituzte gailu horiek.

INFORMAZIOA- GAILU DIGITALAK ESKURATZEKO BEKA



HARTZAILEAK

Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 2020-2021ko ikasturteko ikasleak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetakoak zein itunduetakoak, baldin eta eskakizun hauek betetzen badituzte: ikastetxea SARE_HEZKUNTZA GELAN izeneko sarean egotea 2014-2015 ikasturtetik aurrera, eta 2019-2020ko ikasturtean eskola-materialerako beka-onuraduna izatea, unibertsitatez kanpoko mailetako ikasleak eskolaratzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdian.

DEIALDIA

[AGINDUA, 2020ko irailaren 29koa](#)

Eskabidea nola egin

- [Ziurtagiri digitalaren bidez](#)  sartuta (NAN, Izenpe txartela...) edo itsasontzien jokoa erabilita (B@kq).
Betetzeko epea: 2020ko urriaren 16tik azaroaren 15era, biak barne.
Modalitate honetan **ez** da eskabide-formularioa ikastetxean aurkeztu behar.
- [Sisteman erregistratuta](#) , helbide elektroniko baten bidez **eta honako bide hauetako bati** jarraituta: HIA (Hezkuntzako Identifikazio Agiria) / NAN.
Betetzeko epea: 2020ko urriaren 16tik azaroaren 15era, biak barne
Ikastetxean aurkezteko epea (**beharrezkoa**): 2020ko azaroaren 15 arte, egun hori barne, idazkaritza-ordutegia amaitu baino lehen.
- **Ikastetxean bertan, bide presentzialean**: 2020ko urriaren 16tik azaroaren 15era, biak barne, idazkaritza-ordutegia amaitu baino lehen.